

IRIZPENA 19/04

Nélida Zaitegi, Presidenta
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Ainara Ibañez
M^a Teresa Ojanguren
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, Secretaria Técnica

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2019ko urtarrilaren 30ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **irakats arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntz gaitasunen eskakizunak ezartzen dituen Dekretu proiektua aldatzen duen dekretuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren bidez atzerriko hizkuntzen titulu eta ziurtagiriak aitortzen dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunaren betekizunak ezartzen dira.

Dekretu horren eranskin bakarrean hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuko B2, C1 eta C2 mailetako titulu eta ziurtagiriak jasotzen dira, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan gaiak edo ikasgaiak emateko behar den hizkuntza-gaitasuna frogatzen dituztenak.

Baina titulu eta izendapen berriak agertu direnez, eranskina eguneratu behar da, horien titularren eskubideak zaintze aldera.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek artikulua bakarria eta azken xedapen bat ditu.

Artikulu bakarrak eranskina aldatu egiten du, zeinak Marko Komuneko B2 mailako edo maila handiagoko titulazioak, akreditazioak eta ziurtagiriak jasotzen baidu.

Halaber, Lehen Xedapen gehigarria aldatzen du; erredazio berrian, ahalmena ematen dio Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzari eranskina eguneratzeko baldin eta kasu bakoitzean eskatzen diren hizkuntza-gaitasunak frogatzeko titulu edo ziurtagiri berriak agertzen badira.

Azken Xedapenak dio araua indarrean sartuko dela EHAAAn argitaratzen den egunetik aurrera.

III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak 73/2012 Dekretua aztertu zuen 11/10 Irizpenean eta balorazio orokor positiboa egin zion.

Kasu honetan, aldaketak I. eranskinean bakarrik du eragina, ingeleseko maila desberdinetanziurtagiri berriak erantsi direlarik..

Gainera, ahalmena ematen dio Hezkuntza Sailaren mendeko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari aldaketa gehiago egiteko eranskinak eguneratzeko.

Kontseiluak positiboki baloratzen du proposatutako aldaketa, batik bat etorkizunean eman daitezkeen aldaketak errazten dituelako.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2019ko urtarrilaren 30ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: EVA BLANCO OCHOA

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA